

LOINATZ FUTBOL ZELAIAN BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA

2017k martxoaren 30eko saioan Tokiko Gobernuaren Batzordeak onartua

Idazkaria.

LIZITAZIOAREN EZAUGARRIAK																			
KONTRATUAREN HELBURUA																			
Espediente-zenbakia Helburua	2017PROB0004 LOINATZ FUTBOL ZELAIA BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO																		
AURREKONTUA																			
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZ GABE)	525.346,40 €																		
Aurrekontu Osoa (BEZ BARNE)	635.669,14 €																		
URTEALDIAK																			
Ekitaldia	2017																		
Zenbatekoa	660.000,00																		
Partida	03,50,622,342,30,01																		
EPEA																			
Gauzatze epea	11 ASTEBETE																		
Atzeratutako eguneko zehapenak	105,07 €																		
PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA																			
Formula	Ez dagokio																		
BERMEAK																			
Behin-behinekoa	Ez da eskatzen																		
Behin betikoa	Kontratuaren esleipen-aurrekontuaren % 5																		
KAUDIMENA JUSTIFIKATZEA																			
	Ikus Plegu honetako 24.1. artikulua																		
LIZITAZIOKO PUBLIZITATE-GASTUEN GEHIENEZKO ZENBATEKOA																			
	800,00 €																		
ALDAERAK																			
Proiektu-aldaerak	Ez da onartzen																		
ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA																			
Asegurua	600.000,00 €																		
BERME-EPEA																			
Epea	Urte BAT (1) obren harrera-datatik aurrera																		
AZPIKONTRATATZEKO GEHENEZKO PORTZENTAJEA																			
Portzentajea	% 50,00 gehienez KONTRATUAREN prezioa																		
Izapidea	Arrunta																		
Kontratazio-prozedura	PUBLIZITATE BIDEZKO OHIKO PROZEDURA																		
Kontratuaren esleipena	Balioespen-irizpide hauen bidez:																		
	<table> <tr> <th>BALORAZIO IRIZPIDE AUTOMATIKOAK</th><th>PUNTOS</th></tr> <tr> <td>1. Belarraren kalitate teknikoa</td><td>De 0 a 30</td></tr> <tr> <td>2. Prezioa</td><td>De 0 a 25</td></tr> <tr> <td>PUNTUAK GUZTIRA: BALORAZIO AUTOMATIKOA</td><td>De 0 a 55</td></tr> <tr> <th>BALORAZIO IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK</th><th>PUNTOS</th></tr> <tr> <td>3. Tribunaren atzealdean egingo diren hobekuntzak</td><td>De 0 a 20</td></tr> <tr> <td>4. Berme eta mantentze epea</td><td>De 0 a 15</td></tr> <tr> <td>5. Exekutatzeko epea</td><td>De 0 a 10</td></tr> <tr> <td>PUNTUAK GUZTIRA: BALORAZIO EZ AUTOMATIKOA</td><td>De 0 a 45</td></tr> </table>	BALORAZIO IRIZPIDE AUTOMATIKOAK	PUNTOS	1. Belarraren kalitate teknikoa	De 0 a 30	2. Prezioa	De 0 a 25	PUNTUAK GUZTIRA: BALORAZIO AUTOMATIKOA	De 0 a 55	BALORAZIO IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK	PUNTOS	3. Tribunaren atzealdean egingo diren hobekuntzak	De 0 a 20	4. Berme eta mantentze epea	De 0 a 15	5. Exekutatzeko epea	De 0 a 10	PUNTUAK GUZTIRA: BALORAZIO EZ AUTOMATIKOA	De 0 a 45
BALORAZIO IRIZPIDE AUTOMATIKOAK	PUNTOS																		
1. Belarraren kalitate teknikoa	De 0 a 30																		
2. Prezioa	De 0 a 25																		
PUNTUAK GUZTIRA: BALORAZIO AUTOMATIKOA	De 0 a 55																		
BALORAZIO IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK	PUNTOS																		
3. Tribunaren atzealdean egingo diren hobekuntzak	De 0 a 20																		
4. Berme eta mantentze epea	De 0 a 15																		
5. Exekutatzeko epea	De 0 a 10																		
PUNTUAK GUZTIRA: BALORAZIO EZ AUTOMATIKOA	De 0 a 45																		
Lizitazileek aurkezteko dokumentuak eta modua	Plegu honetako 1., 2., eta 3. gutun-azaletan adierazitakoak..																		

Beherapen ausartegietarako ezarritako irizpideak Ordainketa modua Enpresa Sailkatzea Kontratuaren kategoria	Pleguan adierazitakoak. 21. art. Hileko ziurtagiri bidez, plegu honetako 20. artikuluan ezarritakoaren C: ERAIKUNTZAK, 6. AZPIMULTZOA ; Kategoria: 3 ; G: BIDEAK ETA PISTAK , 4. AZPIMULTZOA ; Kategoria: 3 3. KATEGORIA
--	---

AURKIBIDEA

2017k martxoaren 30eko saioan Tokiko Gobernuaren Batzordeak onartua	1
AURKIBIDEA	4
I.- KONTRATUAREN XEDAPENAK	5
1. KONTRATUAREN XEDEA	6
2. GAUZATZE-EPEA	6
3. KONTRATUAREN PREZIOA	6
4. AURREKONTUA APLIKATZEA	6
5. ORDAINKETA MODUA	7
6. PREZIOEN BERRIKUSPENA	7
7. BERMEAK	7
8. KONTRATUA GAUZATZEA	7
9. KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK	8
10. KONTRATUA BETETZEN DUEN BITARTEAN KONTRATISTAK HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN GAINEAN DUEN ARDURA.	9
11. KONTRATUA ALDATZEA	9
12. OBREN HARRERA ETA BERME-EPEA	9
13. EZ-BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK	10
13.1. Kontratua betetzeko epeei dagozkienak	10
13.2. Zerbitzuen gauzatze partzialei dagozkienak	10
14. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK	10
15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK	11
16. OBREN GIDARITZA	11
17. OBRAREN ZUINKETA EGIAZTATZEA	11
18. ENTSEGU ETA FROGAK	12
19. NEURKETAK, BALIOESPENA ETA KONTURAKO ORDAINKETA	12
II. KONTRATATZEKO PROZEDURA	13
20. ESLEIPEN-PROZEDURA	14
21. ESKAINTZA ANORMAL EDO NEURRIGABEAK	14
21.1. Beharpen ausartegiaren susmoa	14
22. BALORAZIO IRIZPIDE AUTOMATIKOAK (55 puntu)	15
22.1. Zelaiaren kalitate teknikoa, 30 puntu	15
22.1.1. Zuntzaren dentsitatea (dtex indizea): 10 puntura arte	15
22.1.2. Zuntzaren pisua: 10 puntura arte	15
22.1.3. Zelaiaren pisua guztira: 10 puntu	16
22.2. PROPOSAMEN EKONOMIKOA: 25 puntu	16
23. CRITERIOS DE VALORACIÓN NO AUTOMÁTICA (45 puntos)	16
23.1. Tribunaren atzealdean egingo diren jarduketan hobekuntzak: 20 puntu	16
23.2. Berme eta mantentze-lanen epea: 15 puntu.	17
• Konpromiso-adierazpena; bertan agertuko da bermearen epea zabaltzeko urte kopurua.	17
• Epea zabaltzen bada, mantentze-programa bat egin beharko dute, prebentzio neurriekin eta neurri zuzentzaileekin, obraren esku-hartzearen esparru guztirako.	17
23.3. Exekutatzeko epea: 10 puntu	17
24. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA	17
25. PROPOSAMENAK AURKEZTEA	18
25.1. 1. GUTUN-AZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA	18
25.2. 2. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI EBALUATZEKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK	19
25.3. 3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI EBALUATZEKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK	20
25.4. ESKAINTZA BALIORIK GABE UZTEA	21
IV. KAPITULUA. KONTRATAZIO MAHAIA	22
26. KONTRATAZIO MAHAIA	23
27. ESLEIPENA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK	23
28. KONTRATUA FORMALIZATZEA	25

III. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.....	26
29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.....	27
30. JURISDIKZIO ESKUDUNA	27
I ERANSKINA.....	28
II. ERANSKINA.....	29
III. ERANSKINA.....	30

I.- KONTRATUAREN XEDAPENAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honi jarraiki gauzatuko den kontratuaren helburua izango da honakoa egitea: **LOINATZ FUTBOL ZELAIAN BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO**, 30/03/17 Tokiko Gobernuaren Batzordean onartutako eta **IZASKUN LARZABAL ARZALLUS**, **Arkitektoa** idatzitako proiektuan zehazten den moduan.

Lana idatzitako proiektuari jarraiki gauzatuko da, eta proiektua osatzen duten dokumentu guztiek eta kontratua formalizatzen den unean esleipendunak bere adostasuna erakusteko sinatu beharko duen Administraziozko Klausura Bereziaren Plegu honek kontratuzko izaera izango dute.

Lanen ordainetan, Beasaingo Udalak kontratistari behar bezala eginiko lanari dagokion zenbatekoa ordainduko dio, aurretik hitzartutako prezioaren arabera.

2. GAUZATZE-EPEA

Murritzgarri izan daitezkeen proposamenen kalterik gabe, lanak gauzatzeko gehieneko epea **11 ASTEBETE** izango da, **Zuinketa-egiaztapen akta** sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; halaber, aipatu akta, gehienez, **hamabost egun naturaleko epearen barruan** sinatu beharko da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratu-epea indarrean dagoen legerian ezartzen diren egoera eta baldintzak betetzen direnean luzatu ahal izango da soilik.

Kontratistaren atzerapentzat hartuko da behin aipatu epea igarotzen denean, Administrazioaren alde aurretiko oharpenaren beharrik izan gabe.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko prezioa izango da, gehienez, **LOINATZ FUTBOL ZELAIAN BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO** aipatu proiektuaren aurrekontuari dagokiona, plegu honen hasieran ezarri den moduan. Administrazioaren aurrekontua 525.346,40 eurokoa da (BEZ GABE); horietatik 162.540 € BELAR ARTIFIZIALA JARTZEARI DAGOZKIO, eta 362.806,40 € OBRA ZIBILARI; hortaz, lizitazio honetarako aurreikusitako kontratu mota OBRA izango da. Kopuru hau azpirantz hobetu ahal izango dute lizitatzailerak, eskaintza bakoitzaren zenbatekoan **Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barneraturik EZ dagoela ulertuta, gainera bi kontzeptuak bereizita agertu beharko dira.**

Kontratuaren prezioan unitateko prezioen zerrenda barneratuko da, behar bezala banakatuta, eta hauek izango dira gauzapenean zehar kontuan hartuko direnak. Aipatu prezioak aurkezten ez badira, lizitatzailerak Administrazioaren aurrekontuko berberak ematen dituela ulertuko da, bere proposamen ekonomikoaren edukiaren adinako beherazko portzentajea.

4. AURREKONTUA APLIKATZEA

Administrazioak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa **525.346,40 €koa da (BEZ GABE)**

Udalak, **2017** urterako aurrekontuen barnean, **03,50,622,342,30,01** partida du esleitura obra horretarako, **660.000,00** euroko kreditua eskuragarri izanik.

5. ORDAINKETA MODUA

Gauzatutako lanen zenbatekoa Obra zuzendaritzak bidalitako hileroko ziurtagirien bidez egiaztatuko da, eskaintzaileak berak idatzitako balioespenaren zerrenda oinarritzat hartuta.

Bidalitako ziurtagirien ondorioz eginiko ordainketek kontura egindako ordainketa kontzeptua dute, azken neurketan sortzen diren zuzenketa eta aldaketen baitan egonik; inolaz ere, barneratzen dituzten lanen onarpena eta harrera suposatzen ez duelarik.

Plegu honetako kontratuaren formalizaziori dagokion klausulan ezarritako baldintzak bete arte ezingo da inolako ziurtagirik bidali, eta ondorioz ezingo da inolako ordainketarik egin.

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspenik egingo, espedientean egiaztatzen denez.

7. BERMEAK

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko (SPKL) Testu Bateginaren 99. artikuluan ezartzen denez, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailleak behin betiko berme bat eratu beharko du esleipeneko zenbatekoaren % 5eko kopuruan (BEZ ez barne). Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango du, betekizun hori eskatzen zaion egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

Bermearen itzulketa Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 102. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo da, behin berme-epea amaitu ondoren eta esleipendunak kontratuzko betebeharrak guztiak bete ondoren.

8. KONTRATUA GAUZATZEA

Lan-kontratuari **Zuinketa-egiaztapen aktaren sinadurarekin ekingo zaio. Akta hori hamabost egun naturaleko epearen barnean sinatu beharko da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.**

Kontratua kontratistaren arrisku eta kontura beteko da eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obran gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 231. artikuluan aurreikusten diren ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Edozein kasutan, lanak burutzerakoan Plegu honetan ezartzen diren klausulak eta haietara atxikitako zehaztapen teknikoak bete beharko dira zehatz-mehatz; gainera, hurrengoetan ezarritakoa ere bete egin beharko da:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategina
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorra (2001/10/26ko 257 zenbakidun BOEn argitaratua) eta haren azken eguneratzea, 2015eko irailaren 5ekoa.

Kontratu hau Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren baitan garatuko da. Hala, Administrazioak eskumen horiek idatziz nahiz ahoz gauzatuko ditu.

Kontratistari edo haren baitako pertsoneri egotz dakizkiokeen ekintza edo ez-betetzeengatik kontratuaren jardun egokia arriskuan jarriko balitz, Administrazioak kontratuaren jardun egokia eskuratu edo berrezartzeko beharrezkotzat ikusten dituen neurriak hartzea eska dezake.

9. KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK

Kontratista, kontratu honen xede diren lanetan erabiltzen dituen langileei dagokienez, lan arloan (bereziki, Gipuzkoan aplikagarri diren jarduera-sektoreetako Hitzarmen Kolektiboak), Gizarte Segurantzaren, eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera behartuta dago, Administrazioa ez-betetze honen erantzukizunetik at geratzen delarik. Zehazki, Segurtasun eta Osasun Plana gauzatu beharko du, bere kontura eta diligenzia guztiak betez. Aipatu plana urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan nahiz plegu honetan xedatutakoari jarraiki idatzi eta onartu da.

Enpresa esleipendunak kontratuan aurreikusitako epealdiaren barruan gauzatu eta entregatu beharko dizkio proiektututako lanak BEASAINGO Udalari.

Lanak onartutako Proiektuari eta Baldintzen Pleguari, aplikazio orokorreko araudiari eta, edozein kasutan, kontratatutako lanei berez dagozkien arau teknikoak jarraiki burutu beharko dira. Edonola, obrako Zuzendariak interpretatutakoaren arabera, hark kontratistari emandako argibideei jarraitu beharko zaie. **Ez obrako Zuzendari Teknikoak, ez kontratistak, ezingo dute kontratatutako lanetan aldaketarik sartu edo gauzatu**, aurrez eskumeneko kontratazio organoaren onarpena jaso gabe.

Kontratista esleipenduna izango da lanen garapen egokiaren eta Proiektuan aurreikusitako irtenbideak burutzearen arduraduna, lanak behar bezala bukatu artean.

Jarraian, kontratistak bere kabuz zaindu beharreko hainbat arlo adierazten dira, orientabide moduan:

- Topografia osagarria eta zuinketazkoa.
- Kaltetutako zerbitzuak hauteman eta haiek kentzea programatzea.
- Aipatu zerbitzuen birjartze-proiektua eratu eta berau bere titular eta erabiltzaileen lankidetzan eta adostasunean gauzatzea.
- Hala badagokio, ezponden eta zimendatzeen egokitzapen eta birdoitzea.
- Segurtasun eta Osasun Plana.
- Administrazioaren ekimenez, kontratista esleipendunari eskatzen zaizkion lan osagarri oro egitea, obraren kontratuan agertzen diren baldintzen arabera eta indarrean dagoen legeriaren testuinguruan; esate baterako, sarbideen berritze eta egokitzapena, eta hala badagokio, argiteria azpiegituren obra zibila edo bestelako zerbitzuak.
- EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO UDAL ORDENANTZA (1990eko apirilaren 5eko 67. zenbakidun GAOen argitaratua) betetzea.
- AS-BUILT planoak entregatzea, DGW eta GIS formatuan. Halaber, haiek berresteko Datu Baseak EXCEL formatuan, erreferentzia modura udalerriko base geodesikoak hartuz.

Gainera, kontratistak obrak egiteko betebeharra izateaz gain, obrak zaintzeko betebeharra du, harik eta obrak onartutzat jotzen diren arte. Era berean, obrak onartu bitartean, esleipendunak bertan dauden ondasun eta lurak zaintzeko ardura izango du.

10. KONTRATUA BETETZEN DUEN BITARTEAN KONTRATISTAK HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN GAINEAN DUEN ARDURA.

Kontratatista lanak gauzatzetik (zuzenean edo zeharka) eratoritzen diren hirugarrenei eragindako kalterik ez sorrarazteko beharrezko neurriak hartuko ditu, eta bera izango da kalte eta galera ororen erantzule bakarra.

Kontratista, lana gauzatzen den denboran, bere arduraren dauden pertsonen ekintza, ez-betetze edo arduragabekeriaren ondorioz edo obren antolaketa, zainketa edo seinaleztapen eskasaren ondorioz edozein pertsona, jabego edo zerbitzuri (pribatua ala publikoa) eragin dakiokkeen kalte eta galera ororen erantzule izango da.

Enpresa esleipendunak uneoro aseguru-kontratu bat izango du aipatu kalte edo galerei erantzuteko, plegu honen hasieran adierazten den "KONTRATUAREN EZAUGARRIEN KOADROAN" ezartzen den zenbatekoaren gutxieneko estaldurarekin.

Administrazioak egoki ikusten duenean, administrazioa bera izan daiteke kontratatutako lanak gauzatzearen ondorioz hirugarren batek pairatutako kalte edo galeren erantzule zuzena, eta kontratatutako enpresari gastua jasanarazi ahal dio, gertakizun hori jakinarazi ostean.

Egindako gastuak jasanarazteko, Administrazioak enpresari zor zaion edozein kopuru atxikiz edo fidantza moduan ordaindu den Abala erabiliz jardun dezake, berak nahieran.

Kontratistaren kontura eta bere baitakoak izango dira, egindako gestioak, gastu guztien ordainketak, tasak, arielak, e.a.; eta era berean, bere kontu eta baitakoak izango dira, funtzionamendurako alta eta baimena, sare eta zerbitzueterako loturak eta behin-behineko eta behin betiko hartuneak eskuratu ahal izateko, eta orokorrean, instalakuntzen funtzionamendu egoki eta legezkoa izateko, eskumeneko Erakundeei aurkeztu beharreko proiektuak idatzi eta oniritzia jasotzea.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Interes publikoko arrazoiak direla medio, Administrazioak kontratua moldatu ahal izango du aurreikusi gabeko gertaerei erantzuteko, kontratatista inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ez duelarik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 105-108 bitarteko artikuluetan ezartzen denaren kalterik gabe.

Kontratuan ematen diren aldaketek bertan agertzen ez diren laneko unitate berriak sartzea eragiten dutenean, aldaketa horien prezioak Kontratazio Organoak finkaturikoak izango dira eta kontratatista onartzen ez badu, Kontratazio Organoak beste enpresari batekin kontratatu ahaliko ditu aurrez finkatutako prezio berean, edo berak egin ahal izango ditu zuzen-zuzenean.

12. OBREN HARRERA ETA BERME-EPEA

Obrak bukatzen direnetik gehienez hilabete bateko epearen barruan haiek onartzeko ekitaldi formal eta positiboa egingo da, eta bertatik dagokion akta jasoko da. **GAUZATUTAKO OBREN AZKEN PLANOAK** CAD formatuan entregatuko dira eta udal-kartografiako ildoak jarraiki, bertako erreferentziazko oinarri eta geruzak gaineratuta. Halaber, obraren eremuan dauden sare eta instalazioak barneratuko dira, nahiz eta obrek horietan aldaketarik ez eragin. (AS-BUILT planoak, DGW eta GIS formatuan. Halaber, haiek berresteko Datu Baseak EXCEL formatuan, erreferentzia modura udalerriko base geodesikoak hartuz).

Halaber, onarpen formala egiten den egunetik hasita **URTE BATEKO** epea ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legeko eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako bermetzat. Aipatu epealdian zehar kontratistaren ardura izango da obren zainketa, kontzeptu honengatik inolako kalte-ordain edo ordain eskubiderik izango ez duelarik.

Dena den, behin berme-epea gainditu ondoren kontratistak kontratua ez betetzearen ondorioz eraikuntzan sortutako ezkutuko akatsen eraginez obrak kalte handiak izaten baditu, kontratista izango da kalte eta galera hauen erantzule hamabost urteko epean, obren onarpena egiten denetik hasita. Behin epe hori inolako kalte edo galerarik gabe igaro ondoren, kontratistaren erantzukizuna erabat desagertuko da.

Berme-epealdia amaitu ondoren eta obrak behin betikoz onartuta, kontratua betetzat joko da eta berme moduan ordaindutako fidantza itzuliko da.

Horretarako, obren Zuzendari fakultatiboak (ofizioz edo kontratistak ahala eskaturik) obren egoerari buruzko txosten bat eratuko du, berme-epealdia bete aurreko **hamabost egunen barruan**. Hau aldekoa izango balitz, kontratista erantzukizun guztietatik at geratuko da, SPKLaren 219. artikuluan ezarritakoaren salbuespenarekin; ondorioz, berme modura ordaindutako fidantza itzuli edo ezeztatuko da, kontratua likidatuko da, eta hala badagokio, ordaintzeke dauden betebeharrak ordainduko dira. Txostena aldekoa izan ez eta hautemandako akatsak lana gauzatzerakoan egindako huts egiteen ondorio balira eta ez eraikitakoaren erabileraren ondorio, orduan, Zuzendari fakultatiboak kontratistari jarraibide egokiak emango dizkio eraikitakoa behar bezala konpontze aldera, betiere, berme-epearen barruan; horretarako, epe bat emango dio eta denbora horretan lanen zainketaren ardura izaten jarraituko du, berme-epea luzatzeagatik inolako kopururik jasotzeko eskubiderik gabe.

13. EZ-BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

13.1. Kontratua betetzeko epeei dagozkienak

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratua betetzeko epealdian atzerapenik izango balu, Administrazioak berak nahieran erabaki dezake, hura etenaz, bermearen galera ezarritako edo eguneroko zigorrak ezarritako, **0,20 € kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko** proportzioan.

Atzerapenen ondoriozko zehapenak kontratuaren prezioaren % 5eko multiploa hartzen duten aldiro, kontratazio organoak kontratua eteteko ahalmena izango du, edo eraikuntzarekin jarrai dezatela erabakitzekoa, zigor berriak ezarrita.

13.2. Zerbitzuen gauzatze partzialei dagozkienak

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratuan zehazten diren zerbitzuen gauzatze partzialak beteko ez balitu, Administrazioak, berak nahieran erabaki dezake, kontratua etenaz edo **kontratuaren prezio osoaren % 10aren** baliokide den zigorra ezarritako.

Zerbitzuak zati batean betetzen ez baditu, Administrazioak kontratuaren **aurrekontuaren % 10aren** baliokide den zigorra ezarri ahalko du.

14. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK

Kontratatik, plegu honetan edo kontratuaren gainerako dokumentuetan derrigortzat jotzen den edozein betebeharrak ez betezea, kontratua eteteko nahikoa arrazoi izan daiteke.

Lan-kontratua eteteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 237 eta 239 artikuluetan ezartzen direnak.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Hona administrazioak izango dituen eskumenak: kontratua interpretatzea, hura betetzeak sor litzakeen zalantzak argitzea, interes publikoko interesak direla medio hura aldatzea eta, hura etetea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea. Hori guztia, betiere, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean ezarritako baldintza eta ondorioen barruan eta horien arabera.

16. OBREN GIDARITZA.

Obrak obrako Zuzendari fakultatiboak Proiektuaren gainean egiten duen interpretazio teknikoaren ondorioz kontratatari emandako jarraibideen arabera burutuko dira eta kontratatik derrigorrez bete beharko ditu.

LOINATZ FUTBOL ZELAIAN BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO egiteko lanak (Obren Gidaritza, Segurtasun eta Osasun arloko koordinazioa, Ingurumenaren Jarraipena egiteko Plana betearaztea eta Kalitate-kontrolaren Plana betearaztea) BEASAINGO UDALAK horretarako kontratatutako profesionalak burutuko dituzte.

Obrako Zuzendari fakultatiboak kontratatari ematea egoki ikusten dituen agindu, jarraibide eta jakinarazpenak Agindu-liburuan emango dira idatziz, sinadura bidez baimenduta. Jarraibideak ahozkoak izango balira, idatziz berretsi beharko dira ahalik eta lasterren, bi aldeentzat lotesleak izan daitezkeen.

Kontratatik Agindu-liburua eta Intzidentzien liburua, aurretik haien zuzenmenak egin ondoren, uneoro obran eskuragarri izateko betebeharra du eta Zuzendaritza Fakultatiboak eskuragarri izango ditu obraren garapenean zehar ematen diren bisita, intzidentzia eta aginduak bertan adierazteko. Kontratatik, bere kabuz edo bere baitako pertsona baten bidez, jarraibide horiei dagozkien hartu-agiriak sinatzeko betebeharra du.

Onarpen ekitaldian Agindu-liburua behar bezala beteta aurkeztea eskatuko da eta Administrazioaren eskuetara pasako da behin onarpena eman ondoren.

17. OBRAREN ZUINKETA EGIAZTATZEA

Zuinketa-egiaztapen akta, gehienez, **15 egun naturaleko epearen** barruan sinatuko da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Obren zuinketa-egiaztapena esleipenduna edo bere ordezkaria bertan egonik burutuko da. Aipatu epearen atzerapena kontratua eteteko nahikoa arrazoi izango da.

Obra ezin da hasi Zuinketa-egiaztapen akta idatzi gabe edo akta horretan sendotzat hartzen diren erreserbarik ageri bada; halakoetan, obren hasiera bertan behera geratuko da edo behin betiko geldiarazteko erabakia hartuko da.

Administrazioak obren hasiera **sei (6) hilabete baino gehiagoko epeaz** bertan behera uztea, kontratua eteteko nahikoa arrazoi izango da.

Era berean, obra ezingo da hasi, aurretik, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera Segurtasun eta Osasun Plana onartu gabe.

18. ENTSEGU ETA FROGAK.

Obrako Zuzendariak edozein unetan, obrako material eta unitateen entsegu, froga eta azterketak ziurtatzea agin dezake, kasu bakoitzean egoki ikusten duenean eta kalitate-kontrolako programan agertzen direnean. **Kontzeptu horren ondorioz ateratzen diren gastuak kontratistaren konturakoak izango dira, gehienez kontratuaren prezioaren % 1era iritsi arte.**

Gainera, obrak amaitzean, beharrezkoak diren frogak egingo dira eta froga horien emaitzei dagokien akta idatziko da.

Froga proiektua, gauzapena eta ebaluazioa langile espezializatuek egingo dute, betiere, Obrako Zuzendariak kasu bakoitzean finkatzen dituen baldintzen arabera.

19. NEURKETAK, BALIOESPENA ETA KONTURAKO ORDAINKETA.

Obrako zuzendaritzak, aldizka, egindako obra-unitateak neurtuko ditu.

Neurketa hori oinarritzat hartuta, jatorrizko zerrenda balioztatua idatziko da, proposamenari dagozkion unitateko prezioak aplikatuz.

Egindako lanen zenbatekoa kontratistari egiaztatuko zaio hilero, Obrako Zuzendariak bidalitako Ziurtagirien bitartez.

Kontratistak Ziurtagiriaren adostasuna eman dezake bertan sinatuz. Ziurtagiriekin ados ez badago egoki ikusten dituen arrazoibideak adieraziko ditu idatziz.

Ziurtagiria onartu ondoren, kontratistak hura obraren behin betiko likidazioaren kontura ordaintzeko eskubidea izango du, legea aurreikusitako epeen barruan.

Hala badagokio, aurrekontuan barneratzen diren oroharreko partidak "justifikatzeke" izango dira eta Proiektuaren Aurrekontuko unitateko soldaten bidez ordainduko dira edo haietatik kendutako unitateen bidez, eta bakar-bakarrik azken aukera bezala, prezio berriei buruzko legera joaz.

Justifikatzeke dauden oroharreko partidak ordaintzeko, eta unitateko soldaten aplikazioa egin ezin denean, Administrazioak hirugarrenei fakturatzeko aukera balia dezake, aldeztu aurretik obrako Zuzendaritza fakultatiboak baimendu eta onartu ondoren. Fakturatutako zenbateko likidoa kontratistak ordainduko du eta Administrazioak itzuliko du, hurrengo hilabetean bidaliko den Obrako Ziurtagirian barneratuta.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

20. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua **PUBLIZITATE BIDEZKO OHIKO PROZEDURA** bidez esleituko da.

Honakoak dira kontratuaren esleipenerako oinarri moduan erabili beharreko irizpideak, garrantziaren eta ematen zaien haztapenaren arabera goitik behera emanak:

BALORAZIO IRIZPIDE AUTOMATIKOAK	PUNTOS
1. Belarraren kalitate teknikoa	0-30
2. Prezioa	0-25
PUNTUAK GUZTIRA: BALORAZIO AUTOMATIKOAK	0-55
BALORAZIO IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK	PUNTOS
3. Tribunaren atzealdean egingo diren hobekuntzak	0-20
4. Berme eta mantentze epea	0-15
5. Exekutatzeko epea	0-10
PUNTUAK GUZTIRA: BALORAZIO EZ AUTOMATIKOAK	0-45

21. ESKAINTZA ANORMAL EDO NEURRIGABEAK

Enpresa lizitatzailerik egindako eskaintzak egokiro bete daitezkeenaren inguruko zalantzak daudenean, proposamen ekonomikoak urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 85. artikularen eta hurrengoaren arabera aztertuko dira.

Neurrigabea edo anormala izan daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, hura aurkeztu duen lizitatzailerarekin elkartzeko eskaera burutuko da, eskaintzaren balioespena justifika dezan eta bertako baldintzak zehatz ditzan, bereziki, kontratua gauzatzeko prozedurak ahalbidetzen duen aurrezpenaren, hartutako irtenbide teknikoaren eta zerbitzua emateko dituen baldintza bereziki aldekoen, proposatzen diren zerbitzuen originaltasunaren, enpleguaren babesari eta zerbitzua emango den lekuan indarrean izango diren lan-baldintzei dagozkien xedapenak errespetatzearen edo Estatutik laguntza jasotzeko aukeraren inguruan.

21.1. Beharpen ausartegiaren susmoa

Herri Administrazioen Kontratuaren Legeko Araudi Orokorra onartzeko urriaren 12ko 1098/2001 ERREGE DEKRETUKO 85. artikuluari jarraiki, hasiera batean, jarraian adierazten diren egoeratan dauden eskaintzak neurritz kanpoko edo ausartegizat hartuko dira:

1. Lizitatzailerak bakarrik parte hartzen duelarik, lizitazioko oinarritzko aurrekontuarekiko, gutxienez, portzentajezko 25 unitate baino baxuagoa dena
2. Bi lizitatzailerak parte hartzen dutelarik, beste eskaintzarekiko, gutxienez, portzentajezko 20 unitate baino baxuagoa dena.
3. Hiru lizitatzailerak parte hartzen dutelarik, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko, gutxienez, portzentajezko 10 unitate baino

baxuagoak direnak. Hala ere, batez besteko hori zehazteari dagokionez, zenbateko handiena agertzen duen eskaintza baztertu egingo da, batez besteko horrekiko, gutxienez, portzentajezko 10 unitate baino handiagoa denean. Edonola ere, portzentajezko 25 unitatetik gorako beherapena neurriz kanpokotzat joko da.

4. Lau lizitatzaille edo gehiagok parte hartzen dutelarik, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko, gutxienez, portzentajezko 10 unitate baino baxuagoak direnak. Hala ere, horien artean batez besteko hori portzentajezko 10 unitatetan gainditzen duten eskaintzarik bada, beste batez besteko bat kalkulatu da aipatutako egoeran ez dauden eskaintzen artean. Edonola ere, gainerako eskaintzak hiru edo gutxiago badira, batez besteko berria zenbateko baxueneko hiru eskaintzen artean kalkulatu da.
5. Eskaintzak neurriz kanpokotzat jotzeko, kontratazio mahaiak enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko erlazioa har dezake aintzat.

22. BALORAZIO IRIZPIDE AUTOMATIKOAK (55 puntu)

22.1. Zelaiaren kalitate teknikoa, 30 puntu

22.1.1. Zuntzaren dentsitatea (dtex indizea): 10 puntura arte

Zuntzaren gutxieneko dentsitatea 14.000 Dtex izango da.

Homologatutako laborategi batek ziurtatzen duenean eskaintza horen dentsitatea zehaztutako gutxienekoa baino altuagoa dela, honela baloratuko da:

$$Pi = \frac{Di}{Dm} \times$$

Pi: Lizitatzailleak lortutako puntuak

Di: Lizitatzaillearen Dtex indizea

Dm: eskainitako gehieneko Dtex indizea

22.1.2. Zuntzaren pisua: 10 puntura arte

Zuntzaren gutxieneko pisua 1.730 gr/m² izango da

Homologatutako laborategi batek ziurtatzen duenean eskaintza horen dentsitatea zehaztutako gutxienekoa baino altuagoa dela, honela baloratuko da:

$$Pi = \frac{Gi}{Gm} \times 10$$

Pi: Lizitatzailleak lortutako puntuak

Gi: Lizitatzaillearen pisua gramotan

Gm: Eskainitako gehieneko pisua gramotan

22.1.3. Zelaiaren pisua guztira: 10 puntu

Zelaiaren gutxieneko pisua guztira 2.995 izango da
Homologatutako laborategi batek ziurtatzen duenean eskaintza horen dentsitatea zehaztutako gutxienekoa baino altuagoa dela, honela baloratuko da:

$$Pi = \frac{PTi}{PTm} \times 10$$

Pi: Lizitatzailerak lortutako puntuak

PTi: Lizitatzaileraren pisua guztira gramotan

PTm: Eskaintako gehieneko pisua guztira gramotan

22.2. PROPOSAMEN EKONOMIKOA: 25 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneousiz ditzakete.

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneousiz ditzakete.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (behetik gora) antolatuko dira.
2. Lizitazio-aurrekontuarekiko % 0- **15** bitarteko beherapena erakusten duten proposamen ekonomikoen kasuan, balioespena eskaintza ekonomikoaren behea (ehunekotan adierazia) **1,6667** punturekin biderkatuta lortuko da. Horrenbestez, balioespen-aurrekontuarekin bat datozen proposamenek 0 puntu jasoko dituzte eta % **15**eko beherapena erakusten duen proposamenak **22** puntu jasoko ditu.
3. Lizitazioarekiko % **15**etik gorako beherapena erakusten duten proposamen ekonomikoen kasuan, balioespena hurrengo balioen interpolazioa lineala eginez lortuko da:
 - i. A, % **15**eko beherapena, **22** punturekin
 - ii. B, Proposamen ekonomikoki onuragarria, **25** punturekin.

23. CRITERIOS DE VALORACIÓN NO AUTOMÁTICA (45 puntos)

23.1. Tribunaren atzealdean egingo diren jarduketaren hobekuntzak: 20 puntu

ATALA: HOBEKUNTZAK: Azalpen laburra (**GEHIENEZ A4 ERAKO 3 ORRIALDE, Arial 10 letra-tipoa**), eskaintzaileak proposamenean **KOSTU**

EKONOMIKOA AREAGOTU GABE ETA EXEKUTATZEKO KONPROMISOAREKIN barneratutako HOBEKUNTZAK zehaztut:

- Zoladuraren mota eta kalitatea hobetzea eta zoladuraren azalera handitzea: (Gehienez 5 puntu)
- Gunearen erabilera polibalentea izateko proposamenak. (Gehienez 10 puntu)
- Gune honen funtzionamendua hobetzen duen seinalitika. (Gehienez 5 puntu)

23.2. Berme eta mantentze-lanen epea: 15 puntu.

- Konpromiso-adierazpena; bertan agertuko da bermearen epea zabaltzeko urte kopurua.
- Epea zabaltzen bada, mantentze-programa bat egin beharko dute, prebentzio neurriekin eta neurri zuzentzaileekin, obraren esku-hartzearen esparru guztirako.

Lizitatzaileraren batek aurreko bi ataletako agiriak aurkezten ez baditu, edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, atal honetan 0 puntu emango zaizkio.

Pleguan zehaztutako berme-epea baino handiagoa eskaintzen duen lizitaztaileak, hau da, urte bat baino gehiago, 3 puntu lortuko ditu urte bakoitzeko, gehienez 15 puntu lortu arte.

Aurkeztutako agiriak lizitaztaileak sinatu beharko ditu.

23.3. Exekutatzeko epea: 10 puntu

Egunen murrizketa baloratuko da PLANNING (GANT) baten bitartez frogatzen den bitartean; bertan agertu beharko dira proiektuko partida guztiak, bide kritikoa identifikatuz eta partida bakoitzean erabiliko diren baliabide guztiak (giza baliabideak eta materiala) zehaztuz. Epearen murrizketaren % 10^a gainditzen edo berdintzen duten eskaintzek gehieneko puntuazioa lortuko dute, eta gainontzekoak proportzioan jasoko dituzte puntuak.

24. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura honetan gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural nahiz juridikoek parte har dezakete, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatuz, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 60. artikuluan ezartzen diren kontratatzeako debekurik ez badute. Kaudimena plegu honetan ezartzen denaren arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Halaber, beren kabuz edo haiek baimendutako pertsona baten ordezkariarekin aurkez daitezke, horretarako nahiko botere emanda. Pertsona juridiko baten ordezkari izan bertako kideren batek jardungo balu, dokumentu bidez ziurtatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkaria lehen adierazitako ezgaitasun-arrazoien eraginpean egongo da, kontratatzeari dagokionez.

Halaber, enpresariak ere, kontratuaren xede den jardura edo zerbitzua burutzeko eskatzen den enpresa- edo lan-gaitasun frogatua izan beharko dute.

EUSKADIKO Kontzertu Ekonomikoa onartzeko maiatzaren 23ko 12/2002 Legean ezartzen denaren arabera, lehiaketan lizitatu ahal izateko, ez da beharrezkoa izango enpresa lizitatzailerak Gipuzkoako Lurraldeko industria zergadun moduan matrikulatuta egotea. Baina obra esleitu bakoitzeko, bertan adierazten den araubide fiskala bete beharko luke.

25. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Enpresa lizitatzailerak proposamenak Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako beste edozein modutan. **Aurkezteko epea HOGEITA SEIGARREN EGUN NATURALAREN ARRATSALDEKO 14:30EAN amaituko da, aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.**

Lizitatzailerak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Beste batzuekin aldi baterako elkartuta ere, ezingo du proposamenik luzatu, aurretik indibidualki egin badu, edo aldi baterako elkarketa bat baino gehiagoan agertzen bada. Printzipio hau hausten bada, automatikoki berak sinatutako proposamen oro baliogabetuko da.

Gutun-azal bakoitzean proposamena aurkeztu duen enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaeratan egiten duen adierazi beharko da. Guztia modu irakurgarrian, aurkeztu beharreko HIRU gutun-azalak sinatuta egon beharko direlarik.

Proposamen horiek adierazitako leku eta ordutegi berean aurkeztu beharko dira BI gutun-azal itxiren bidez eta bertan **“LOINATZ FUTBOL ZELAIAN BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO”** idatzi beharko da, barruan hurrengo dokumentuok sartuta:

25.1. 1. GUTUN-AZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA

- a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo entitate baten ordezkartzean parte hartuz gero, notario-ahalordea.
- b) Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, eraketa edo moldaketa eskritura aurkeztu beharko da, hala badagokio, aplikatu ahal zaion merkataritza-legeriaren arabera inskribapena eskatu ahal zaionean, Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatua egotearen agiria eta dagokion identifikazio fiskaleko zenbakia. Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasunaren egiaztapena, eraketa-eskritura edo -dokumentuaren bidez, estatutuen bidez edo fundazio-egintzaren bidez aurkeztuko litzateke. Bertan bere jardura arautzeko arauak adierazi beharko dira, hala badagokio, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta ageri direnak. Enpresariak Europar Batasuneko Estatu Kide ez espainiarrak direnean, dagokion zerbitzua emateko gaituta daudela egiaztatzea beharko dute, haiei dagokien Estatuko legerian ezarritakoak betez.
- c) Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 60. artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diolako aitorten sinatua, hala nola, indarrean dauden xedapenek ezartzen dituen zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituelako aitorten sinatua. Azken horiek aurkeztu beharko dira, bi horien gaineko ziurtagiria aurkeztu ezean.
- d) Kaudimen teknikoa eta ekonomikoa: enpresa sailkapenaren ziurtagiria.

- e) Halaber, obren egikaritzean parte hartuko duten teknikarien izen-zerrenda gaineratu beharko da derrigorrez, haien kalifikazioa eta esperientzia profesionala egiaztatzeko agiriak atxikiz. Gainera, langile horien lanaldia erabatekoa, partziala edo aholkularitzakoa den (II. ERANSKIN-EREDUA BETEZ) adierazi beharko da.
- f) Era berean, Obrako Buru modura jardungo duen pertsonaren izendapena ere adierazi egin beharko da derrigorrez. Horretarako, obrako buru modura jardungo duen pertsonaren eta proposatzen diren gainerako langileen curriculum vitae eta eskatzen diren titulazioen agiriak aurkeztu beharko dira.
- g) Esleipendunak kontratuaren gauzapenean horretarako beharrezkoak diren langile eta materialak baliatu edo hartzeko konpromisoa hartzen du. Konpromiso horiek kontratuan txertatuko dira, eta pleguak edo kontratuaren dokumentuak funtsezko betebeharrak izatera eman diezaiekete konpromiso horiei, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko Testu Bategina eta ondorengo aldaketak onartzeko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, edo zehapenak ezartzeko, Errege Dekretu bereko 212.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, esleipendunak ere urratzen baditu.
- h) Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratuta, prozedura negoziatura enpresari bat baino gehiago aurkeztuko balitz, horietako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko du aurreko puntuetan xedatutako moduan eta, halaber, Aldi baterako Enpresa Elkartea sortzeko konpromisoa erakutsi beharko du esleipendun ateraz gero. Era berean, proposamenean zehaztu egin beharko dute AEEko kide bakoitzak zein lan beteko duen, bakoitzaren kaudimen-eskakizunak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.
- i) Atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatzekoa bada, Espainiako edozein arlotako Epaitegi eta Auzitegiaren araubideari jarraituko diotelako aitortzea aurkeztu beharko dute, kontratuaren ondorioz, zuzenean zein zeharka, sor daitezkeen arazoak konpontzeko, eta lizitatzailerari legokiokkeen atzerriko jurisdikzioari uko eginda, hala behar izanez gero.
- j) Jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea.
- k) Gutun-azal honetan aurkeztu diren dokumentu guztien eskaneatuak, paper formatuan.

Halaber, a), b) hizkietan adierazitakoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Lizitatzailerak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko edo Estatuko Lizitatzailerak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri baten bidez egiaztatu daitezke, edo bestela, SPKLaren Testu Bateginaren 59.4. artikuluan ezartzen den sailkapenezko erkidegoko ziurtagiri baten bitartez. Kasu horretan, aipatu ziurtagiriarekin batera lizitatzaileraren aitortzen sinatua erantsi beharko da, dagokion ziurtagirian islatzen diren baldintzetan aldaketarik egon ez dela baieztatuz.

a), b), ataletan adierazitako dokumentazioa lizitatzaileraren aitortzen sinatuarekin ordezkatu daiteke, Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazita. Kasu horretan, esleipen-proposamena jasotzen duen lizitatzailerak, eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko du Kontratazio Organoaren aurrean, kontratuaren esleipena burutu aurretik.

25.2. 2. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI EBALUATZEKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

AUTOMATIKOKI EBALUATZEN EZ DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO dokumentazioa 23 puntuan adierazitako moduan bete beharko da.

Eskatzaileak ez du gutun honetan eskaintzaren zenbateko ekonomikoari buruzko daturik emango.

CD bat entregatuko da **GUTUN-AZAL HONETAN BARNERATZEN DEN DOKUMENTAZIO GUZTIA ESKANEATUTA, PAPER FORMATUAN.**

25.3. 3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI EBALUATZEKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Gutun-azal horretan hau barneratuko da:

- 22 atalean zehaztutako agiriak
- Azpikontratazioa

Eta atal bakoitza jarraian hitzartutakoaren arabera garatuko da:

a) Proposamen ekonomikoa plegu amaieran agertzen den 1. ERANSKINAREN ereduari jarraiki aurkeztu beharko da. Proposamen ekonomikoarekin batera MEMORIA EKONOMIKO bat (AURREKONTUA LIZITAZIOKO FORMATUAN) eta UNITATEKO PREZIOAK gaineratuko dira. Aurkeztutako eskaintzetan ezingo dira Segurtasun eta Osasun arloko zenbatekoak ALDATU, EZTA KALITATE-KONTROLEKOAK ere. Horiek proiektuaren idazleak zehazten ditu.

(i) PREZIOEN KOADROA:

Obra-unitate ezberdinetako prezioak kalkulatzeko orduan, hura gauzatzeko egin beharreko zuzeneko kostuen eta zeharkako kostuen zehaztapena hartzen da oinarri modura. Entregatan BEZ modura erants daitekeen zenbatekoa edo egindako zerbitzuen zenbatekoa erantsi gabe. Hona

- ZUZENEKO GASTUAK:
 - o **Eskulan zuzena** kategoriaka eta errendimenduak ezarrita.
 - o **Materialak**, dagokion obra gauzatzeko beharrezkoak diren GUZTIAK barneratuz, ondoriozko prezioen kopuruak obran bertan ezarrit.
 - o Obra-unitatea gauzatzeko erabilitako makinak eta instalazioak aktibatze edo funtzionarazteko **langile, erregai edota energiaren kostua**.
 - o **Aurrez aipatutako makina eta instalazioen amortizazioa eta mantentze-lanak**.

• ZEHARKAKO KOSTUAK:

Obran bertan dauden bulegoetako instalazioen gastuak, komunikazioak, biltegi, lantegi, langileentzako aldi baterako pabilioi edota laborategien eraikuntza; ESKLUSIBOKI obrara atxikitako teknikari eta administrarien kostuak eta ustekabeko gastuak.

Gastu horiek guztiak, obra-unitatean edo oroharreko partidan balioetsitako aurrekontuan islatzen direnak salbuetsita, kasu bakoitzean Kontratistak, obraren izaerari, aurrekontuaren garrantziari eta aurreikus daitekeen gauzatze-epeari so, baitaratuko duen zuzeneko gastuen portzentaje baten arabera ezarriko dira (obra-unitate guztietan berdina izango da).

Horren ondorioz, PREZIOEN KOADRO horretan barneratuko da:

- **Eskulana:** Eskulanaren ordukako kostuak kategoriaka, aurkeztutako proposamenean eskaintzen diren prezioak zehazteko baliatuko direnak.
- **Materialak:** Proiektuan erabilitako material guztien obrako prezioak.
- **Prezio auxiliarrak:** Kostu zuzenen batura moduan kalkulatuak.
- **Prezio banakatuak:** Prezio guztien kalkulua agertuko da lizitazioko aurrekontuaren hurrenkerari jarraiki.
- **Partida bakoitzaren unitateko prezioak hizkiz emanda.**

AZPIKONTRATAZIOA

Obra honetarako, gehienez azpikontratatzeko portzentajea **50 %** izango da, egikaritze materialaren aurrekontuarekiko.

Halaber, gutun-azal honetan, azpikontratatzeko asmoa badago, azpikontratatzea aurreikusten den kontratuko zatia adieraziko da. Hala, azpikontratu horren zenbatekoa eta enpresa-izena edo -profila adieraziko da. Profil hori lana gauzatuko duten azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoarekin egongo da lotuta. (III. ERANSKIN-EREDUA BETEZ).

CD bat entregatuko da GUTUN-AZAL HONETAN BARNERATZEN DEN DOKUMENTAZIO GUZTIA ESKANEATUTA, PAPER FORMATUAN. Era berean, aurrekontuaren fitxategia helaraziko da PRESTO formatuan.

25.4. ESKAINTZA BALIORIK GABE UZTEA

BALIOGABETZAT hartuko da BAT edota BI gutun-azaletan jasotzen den edozein motako balioespen ekonomikoa barneratzen duen eskaintza eta, horren ondorioz, prozeduratik at geratuko da.

BALIOGABE joko da proiektuaren aurrekontuan ezartzen ez diren material edo partidak planteatzen dituen eskaintza.

IV. KAPITULUA. KONTRATAZIO MAHAIA

26. KONTRATAZIO MAHAIA

Honela osatuko da kontratazio mahaia:

PRESIDENTEA: Alkatea
BATZORDEKIDEAK: Hirigintza Batzordeko Presidentea, Udal aparejadorea, Arkitekto-aholkularia,
eta proiektuaren egilea
KONTU-HARTZAILEA:
IDAZKARIA:

Dokumentazioa kalifikatzeko kontratazio mahaia eratu ostean, aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akats edo ez aipatzerik hautemango balitz, interesdunei jakinaraziko zaie telefax bidez, posta elektronikoz, Beasaingo Udalaren Kontratazio Publikorako Atariaren iragarki-ohol elektronikoz, edo interesdunak jakinarazpenaren edukia jaso duela eta data jakin batean jaso duela ziurtatzea ahalbidetzen duen beste edozein bide baliatuz. Hala, gehienez, 5 egun naturaleko epea emango da lizitatzailleek akatsak konpon edo zuzen ditzaten edo argibide nahiz dokumentu osagarriak aurkez ditzaten.

Behin dokumentazioa kalifikatuta eta, hala badagokio, adierazitako esku-hartzeak eginik, Mahaiak plegu honetan adierazten diren hautaketa-irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu. Horrela, lizitaziorako onartuak eta ukatuak aipatuko ditu, ukapenaren arrazoiak ere emanda. Horiek guztiak lizitatzaillei jakinaraziko zaizkie proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoan eta, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

Eskaintzak EBALUATZEKO plegu honetan ezarritako esleipen-irizpideak hartuko dira oinarri modura, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 134.2. artikuluan xedatutakoa betez jardungo da. Horretarako, Kontratazio Mahaiak, Kontratatzaillearen Profilean adierazitako leku, egun eta orduan, 2. gutun-azala (PROPOSAMEN EKONOMIKOA eta AUTOMATIKOKI EBALUATZEKOAK EZ DIREN ESLEIPEN-IRIZPIDEAK) irekitzeko ekitaldi publikoa egingo du, eta proposamenak irakurriko dira. Behin 2. gutun-azalean barneratzeko dokumentazioa aztertuta eta dagokion balioespen-txostena eginda, Kontratazio Mahaiak, Kontratatzaillearen Profilean adierazitako leku, egun eta orduan, 3. gutun-azala (PROPOSAMEN EKONOMIKOA eta AUTOMATIKOKI EBALUATZEKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK) irekitzeko ekitaldi publikoa egingo du, eta proposamenak irakurriko dira. Behin eskaintzak ebaluatu ondoren, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena kontratazio organoari helaraziko dio, Aktarekin batera. Eskaintza neurrigabe edo ausartegiak zehazteko irizpideak HAKAko (Herri Administrazioen Kontratuko Araudia) 85. artikuluan ezartzen dira.

27. ESLEIPENA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK

Kontratazio Organoak kontratua ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkezten duen lizitatzaileri esleitzea proposatuko du, SPKLTBaren 151.2. artikuluan aurreikusten den kasuan izan ezik. Horrela, goitik beherako hurrenkeran sailkatuko dira aurkeztutako proposamenak, betiere, neurrigabe edo anormaltzat jo ez badira.

Aurkeztutako bi proposamen edo gehiago berdinak balira, gainera prezio baxuena izanik, orduan esleipenean lehentasuna izango du, plegu honetan “Langileen artean ezintasuna duten langileak izateko betekizuna duten enpresekin kontratazio-neurriak” izeneko klausulan aipatzen den betekizuna bete beharrik gabe, kaudimena egiaztatzerakoan langileen artean langile ezinduak dituela (gutxienez % 2) egiaztatu duen enpresaren proposamenak. Hori aplikatze aldera, lizitatzailleek datu hori egiaztatu beharko dute, hala badagokio, lan-kontratuen eta Gizarte Segurantzako kotizazioa erakusten duten dokumentuen bidez. Enpresa lizitatzaille asko berdinduta baleude proposamen onuragarrienari dagokionean eta ezintasuna duten pertsonekin lan-harremana dutela (gutxienez % 2ko portzentajea) egiaztatuko balute, orduan kontratuaren esleipenean lehentasuna izango du langileen artean ezintasuna duten langile finkoen portzentaje handiena agertzen duen

lizitatzailleak. Egoera horren ondotik ere berdinketa ematen bada, orduan esleipenean lehentasuna izango dute gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonen gizarteratzea espezifikoki bultzatzen duten enpresek, gainera konpromiso hau izanik: gutxienez lanpostuen % 30 SPKLTBaren seigarren Xedapen Gehigarriko 2. atalean adierazitako kolektibokoak diren pertsonekin betetzeko kontratua sinatzekoa. Egoera hori eskumeneko gizarte zerbitzu publikoek egiaztatuko dute. Aurreko egoera guztiak aintzat hartuta bi enpresa edo gehiagoren arteko berdinketa ematen bada, zozketa bidez erabakiko da esleipen-proposamena.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailleak kontratazio organoari aurkeztu beharko dio zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela adierazten dituen agiria. Horretarako, HAMAR EGUN BALIODUNEO epea izango du, eskaintzen sailkapena goitik beherako hurrenkeran KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Egiaztapen hori honakoa betez burutuko da:

1. GUTUN-AZALAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA

24.1 klausulako a), b), c), d), g) eta j) ataletan adierazitako dokumentazioa egiaztatzea

ZERGA BETEBEHARRAK:

- a) Ekonomia Jardunen Gainera Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta eman izanaren agiri originala edo fotokopia konpultsatua, betiere, zerga horren baitako jarduerak garatzen baditu, proposamena aurkeztzen duen egunez garatzen dituenak aintzat hartuta, urte horretakoa edo, bestela, azken ordain-agiria. Horrez gain, zerga horretan baja eman ez izana adierazten duen aitorten sinatua.

Zerga hori ordaintzetik salbuetsita dauden subjektu pasiboak aitorten sinatua aurkeztu beharko dute, salbuespenaren arrazoia azalduz. Toki Ogasunak Arautzeko Legeko 82.1. artikuluko e) eta f) ataletan ezarritako salbuespen-egoera batean egotekotan (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako testuategina), era berean, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak onartutako salbuespenari dagokion ebazpena aurkeztu beharko dute.

Aldi baterako enpresa-elkarketa edo -taldeek zergan alta eman izanaren egiaztageria aurkeztu beharko dute, elkarketan barneratutako enpresa bakoitzari dagokion zerga-betebeharren kalterik gabe.

- b) Zerga betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria

GIZARTE SEGURANTZAKO BETEBEHARRAK:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak igorritako ziurtagiri positiboa, HAKAko 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla orokorki adieraztekoak.

Esleipendunak gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonak kontratatzeako konpromisoa hartu bazuen, honakoa aurkeztu beharko du aipatu epean: egoera hori egiaztatzen duten eskumeneko gizarte zerbitzu publikoen txostenak, lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzako kotizazioa erakusten duten dokumentuak.

KONTRATUZKO BETEBEHARRAK:

Behin betiko bermea eratu izana egiaztatzen duen dokumentazioa eta lizitazioko iragarkien ordainketei dagozkien frogagiriak eta, hala badagokio, kontratua gauzatzean erabili edo atxikitzen konprometitutako bitartekoak eskuragarri izatea egiaztatzeako dokumentazioa.

Behin aipatutako dokumentazioa aurkeztu eta behin betiko bermea eratuta, aipatu dokumentuak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo BOST EGUN BALIODUNEN barnean esleipen arrazoitua burutuko da, hautagai eta lizitatzailleei jakinaraziko zaiena eta Kontratatzailearen profilean argitaratuko dena. Esleipen horren arrazoimenean SPKLTBaren 151.4. artikuluan aipatzen den informazioa barneratuko da, kontratazio arloan errekurso berezipean dagoen esleipena aldizka berrikustearen kalterik gabe.

Kontratua behin betikoz esleituta eta errekursoak jartzeko epea halakorik jarri gabe igarota, proposamenetan atxikitako dokumentazioa interesdunen eskuetan geratuko da. Behin betiko esleipena jakinarazi eta hurrengo hiru hilabeteen barnean dokumentazio hori hartzen ez badute, Administrazioak ez du hura gordetzeko betebeharra izango.

28. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Behin esleipena emanda, kontratua hobetu egingo da administrazio-dokumentu modura formalizatuta. Horretarako, esleipena lizitatzailerei eta hautagaiei jakinarazi (151.4. artikuluan adierazitako moduan) ostean, 15 egun balioduneko epea izango da.

Kontratistak hala eskatzen badu kontratua eskritura publiko gisa formalizatuko da, bere kontura izango direlarik hura onartzetik eratorritako gastuak. Kasu horretan, kontratistak aipatu dokumentuaren legezko kopia eta kopia sinplea helarazi beharko dizkio Administrazioari. Horretarako, gehienez, hilabeteko epea izango da formalizazioa egiten denetik hasita.

III. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du eta bertan adierazten ez den guztirako Sektore Publikoko Kontratuko Testu Bateginean nahiz urriaren 12ko 1098/2001 Legearen arabera (2001/10/26 datako 257 zenbakidun BOEn argitaratua) onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean ezarritakoaren arabera jardungo da.

Osagarri gisa, Administrazio-zuzenbideko arau orokorrak hartuko dira aintzat eta, soilik halakorik izan ezean, Zuzenbide Pribatukoak.

Administraziozko Klausura Bereziaren Plegu honen eta espedienteari atxikitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik gertatuko balitz, Plegu honetan ezarritakoari emango zaio lehentasuna.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren aplikazioan edo interpretazioan, gauzapenean, aldaketan, betetzean edo eteteen sor daitezkeen auzibidezko kontuak Beasaingo Udaleko eskumeneko organoek ebatziko dituzte, aldez aurretik pertsona edo enpresa kontratistarekin elkartu ostean. Organo horren akordio eta ebazpenak berehala betearaztekoak izango dira.

Akordio eta ebazpen horiek aurkaratzeko eskumeneko jurisdikzioa administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da beti. Dena den, aldean artean auzibide horiek arbitraiara eramatea erabaki daiteke, indarreko legerian ezarritakoaren arabera.

Beasainen, 2017ko martxoaren 22an

I ERANSKINA

.....jaun/anderea, adin nagusikoa, helbidea(e)an duena.....P.K.;N.A.N. zenbakia izanik,telefono-zenbakia etaposta elektronikoaren jabea, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, berezko izenean (edo.....ordezkatuz, helbidea.....(e)an duena.....P.K;NAN edo IFK zenbakia izanik,telefono-zenbakiaz, **LOINATZ FUTBOL ZELAIA BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO PUBLIZITATE BIDEZKO OHIKO PROZEDURA** bidez kontratatzeako deitutako prozedura irekiaren berri izanik.

ADIERAZTEN DUT:

1. Goran adierazten dena egiteko konpromisoa hartzen dudala€ko prezioan (2) , horri (2) B.E.Zaren % 21 dagozkion €ak erantsiz eta hilabeteko epean, prezioan kontzeptu guztiak sartzen direlarik, edozein arlo fiskalari dagozkion zergak, gastuak, tasak eta arbitraiak eta halaber, kontratistaren etekin industrialak barne.
2. Proiektua, bertako edukia, Administraziozko Klausula Bereziaren Plegua eta kontratu honetan aintzat hartzeko gainerako dokumentazioa ezagutzen dudala, argi eta garbi nire egiten ditudalarik oso-osorik. Halaber, nire egiten ditut enpleguaren babesari, lan-baldintzei, lan-arriskuen prebentzioari (bereziki, Gipuzkoan aplikagarri diren jarduera-sektoreetako Hitzarmen Kolektiboak) eta ingurumena babesteari buruzko betebeharrak. Horrenbestez, kontratua baldintza horietan gauzatzeko konpromisoa hartzen dut.
3. Nire erantzukizunpean adierazten dudala enpresa lizitatzailerak ez duela indarreko legedian adierazten diren administrazioarekin kontratua burutzea eragozten duten debekurik, gaitasun juridikoa duela eta nahikoa baliabide aipatu proiektuko obrak gauzatzeko, eta kontratu honetarako eskatzen diren baldintza espezifikoak betetzen ditudala.
4. Ordezkatzen dudana enpresak indarrean dagoen legediak eskatzen dituen eskakizun eta betebeharrak guztiak betetzen dituela hura irekitzeko, instalatzeko eta abian jartzeko.
5. Era berean, zerga alorrean legeak edo araudiak ezartzen duena betetzeko betebeharra nire egiten dudala.

.....(e)n, 2017koaren.....(e)an

Sinadura

(1) (Pertsona fisiko edo juridikoa izatearen arabera)
(2) Hizki eta zenbakitan.

II. ERANSKINA

KONTRATUA EGIKARITZEKO BEHARREZKOAK DIREN LANGILE EDOTA MATERIALAK BALIATZEKO KONPROMISOARI BURUZKO AITORPEN SINATUAREN EREDUA

.....Jaun/Andreak,
.adin nagusikoa eta.....PK duenhelbidea izanik,
.....NAN zenbakiaren jabe izanik.....telefono zenbakia eta
.....posta elektronikoa dudanak
gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, berezko izenean (edo..... helbidea duen
eta.....
helbidea eta.....PK izanik, Telefono zenbakia duen etaN.A.N edo
I.F.K (1) duen ordezkariaren izenean

ZIURTATZEN DU

Kontratuaren xedea osatzen duten zerbitzuak _____ enpresaren jardueraren barneko xede, helburua edo esparruarekin bat datozela, hartako estatutu edo fundazio-arauen arabera. Halaber, kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren langile eta materialok baliatzeko KONPROMISOA adierazten du:

1. Baliabide Materialak

1.1 _____

1.2 _____

1.3 _____

2. Langileak

2.1 _____

2.2 _____

2.3 _____

Eta horrela ager dadin, **LOINATZ FUTBOL ZELAIA BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO** kontratuaren esleipenerako lizitazioan parte hartzearen ondorioetarako, eta pleguetan eta proiektuetan xedatutako oro betez, agiri hau igortzen da Beasainen 2.017ko _____aren _____(e)an.

Sin.:

III. ERANSKINA

ADMINISTRAZIOARI AZPIKONTRATAZIOARI DAGOKION INFORMAZIOA JAKINARAZTEKO EREDUA

_____ jaunak, _____ NAN zenbakia dudanak, nire izenean, edo _____ enpresaren legezko ordezkari modura, Kontratazio Organoari jakinarazten diot **LOINATZ FUTBOL ZELAIA BELAR ARTIFIZIALA JARTZEKO, DRAINATZE ETA UREZTATZE SISTEMA ALDATZEKO, ETA TRIBUNAREN ATZEALDEAN JARDUKETAK EGITEKO** kontratuaren ondorioetarako, adierazitako zerbitzurako entitate eta portzentaje hauek azpikontratatzeko asmoa dudala:

ADIERAZIZ:

- Azpikontratuan parte hartzen duten _____ subjektuak, azpikontratataren ahalmen tekniko eta profesionala adierazita edo, hala badagokio, zerbitzuaren zati bat egiteko edo gauzatzeko gaitasuna sailkatzeko eta egiaztatzeko agiria.
- Azpikontratista bakoitzak gauzatu beharreko kontratuaren xede edo atalaren adierazpena.
- Azpikontratuaren zenbatekoa eta kontratu nagusiaren prezioaren gainean egikaritze partzialari dagokion portzentajea.
- Azpikontratatista adostutako prezioa azpikontratatuari ordaintzeko epeen adierazpena.

Halaber, adierazten dut azpikontratu honekin/hauekin lotuta eta, hala badagokio, esleitutako zerbitzuaren kontratutik eratorritako hornidura-kontratuekin lotuta, indarreko legean eta Araudietan adierazitako baldintzak beteko direla.

Halaber, adierazten dut azpikontratazioa adostutako pertsonak ez direla kontratatatzeko ezgaituak dauden pertsonak, antolamendua juridikoarekin bat etorritik, edo ez daudela legean adierazten diren egoeretan.

Eta dagozkion ondorioetarako ager dadin honakoa sinatzen dut Beasainen, 2.017ko _____ aren _____(e)an.

Sin.: